

Aspaldi honetan Etzi Portu Maritimoko itsasontzien joan-etorriak jarraitu duenak jakingo du jada rol jokoan inguruan interesatuta gabiltzala.

2019ko abenduan aurkeztu berri dugu 54. Durangoko Azokan (oraindik [luxuzko tomo](#) gisa eskuratu daitekeen) AtopiaRPG euskaraz sortu eta argitaratutako planetako lehen rol joko eta rol jokoak literatura diren ala ez direnaren inguruko eztabaida suharrak [euskalgintzan eta literaturgintzan txertatu nahian](#) gabiltza.



Lur4a: edozein mahaitako perrexila.

Horretaz gain Etzi.pm|n [EnROLatu](#) atala merezi zuen moduan estreinatu dugu Eneko Mazo eta Eneko Sanchezen erreseinekin ([Savage Worlds](#) eta [Top 5](#), urrenez urren) eta Xabier Landabidea (@txerren) Goizalde Landabasorekin batera [Radio Euskadira bidaltzen dugu](#) hamabostean behin, bere gustuko rol jokoan erreseinak egiteko. Etorriko dira gehiago ere.

Gaur ordea **Ilunabar Aldea** ofizialki inauguratzera gatoz: rol jokoetatik abiatuta nahieran kontsumitzeko moduko euskarazko fikzioa sortzeko proposamena. Edo nahiago bada, euskal rokast|erako lehenengo proposamena.

Rol joko deritzegu pertsonaiak elkarrekin interpretatuz istorioak modu kolaboratiboan bizitzeko aukera ematen duten fikziozko jolasei. Arau batzuen eta eszenatoki baten baitan elkarrekin inprobisatutako antzezlan edo literatura kooperatibo eta erdi-inprobisatu kontsideratu genitzake.

Hitzean eta ahotsean oinarritutako jokoak izaki, bereziki egokiak dira irratira fikzio nobelatu (baina hein batean inprobisatu) forman ekartzeko, eta aukera interesgarriak zabaltzen dituzte beste aukera multimedia eta, are, transmedia batzuk esploratzeko (web bidezko zuzeneko streaming ekitaldiak, sare sozial bidezko interakzioa audientziarekin, hizkuntza ikasteko eta

hobetzeko materialgintza...). *Ilunabar Aldeak* euskarazko podcastgintzan leku bat egin nahi dio rol jokoei, horretarako kulturaren alorreko eragile ezberdinak (antzerkia, literatura, telebista, zientzia, bertsolaritza, kirola...) gonbidatuz istorio hauetan parte hartzera.

Idea, berez, idatzizko eta ahozko literaturaren, aurrez argitaratutakoaren eta berehalakotasunean sortutakoaren, autorearen eta narrazio kooperatiboaren arteko irratirako (eta agian etorkizunean beste medio batzuetarako) forma garaikide berriak esploratzea da.

2019 proba-eremua izan da. Audio-gerrila aroa. Gonzo rolkastgintza.

Bilbo Hiria Irratia, Etxeandia garagardotegia, Bilboko Burtsa, Hondarribiko liburutegia eta Durangoko Azokako Kabi@|ren domoa izan ditugu jokaleku eta probaleku. Grabaketak egin ditugu ahal izan dugun moduan. Mikro garestiekin eta merkeagoekin. Hondoko zarata gehiagorekin eta gutxiagorekin. Hanka sartu dugu (eta sartuko dugu berriro eta hobeto), asmatu dugu, barre egin dugu eta beldurtu gara elkarrekin.



Zazpi Frekuentzia eszenarioaren bigarren instantzia, Durangoko Azokan.

Orain uzta jaso eta lehen probak argitaratzea tokatzen zaigu. Apurka igotzen joango gara Mito Baten Heriotza (Kult: Divinity Lost), Antizarra (Cthulhuren Deia), Zazpi Frekuentzia eta Gausen Efektua (AtopiaRPG). Saio inperfektuak izango dira, eta hala defendatzen ditugu: norbait hasi behar da euskal rolkastak gaizki egiten ondo egiten hasi baino arinago, eta gu prest gaude sakrifikatzeko.

2020a deika dugu eta ekarriko ditu saio berriak, asmo berriak, egoitza berriak, bide berriak.

Ordurarte adi seinaleari, eta on egin!

Ongi etorri Ilunabar Aldera.



Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)